

SANTUTEGIKO *DONE* FORMA HEGOALDEKO TRADIZIOAN

Donostia, 1999-VII-09

Jose M. Satrustegi,
Onomastika batzordeak onartua (*)

Luze doa, luzeegi agian ondore onik ateratzeko, *Euskal Izendegiaren eztabaida* antzua. Egoera honek dakarkigun denbora galtze eta umore garraztea ez dira inongo elkarte seriotan onargarriak. Artean, euskal izenen hutsunea lehen bai lehen betetzeko eskez daukagu urte hauetan herria, eta zirikadak neuk nozitzen ditut gehienbat.

Egia esateko, Onomastika batzordearen proposamenei azken aldian egiten zaien eraso sistematikoaren zergatia ez dago batera garbi. Aspaldikoa da Ultzamako Iraizotzen sortutako eztabaida inprobisatu, arin eta zentzugabe hura. Geroztik ibilitako gurutze bidea ez da inorentzat atsegina. Onomastika batzordekide guztiok inkonpetente hutsak gara nonbait, eta hori konpontzea oso erraza da: denoi oporrak eman eta esku hobetan ipini ardura, edo alderantziz zerbait baliagarri aurkez baleza taldeak, beronen txostenei hitzez hitz ala lerroz lerro epe barruan oharrak eginez, beste edozein batzordetan gertatzen den bezala, modu onean gaia bideratzea. Ustetsuen bat-bateko txosten gordinek denbora luzeko ausnartze lana apurtzen dute, prozedura desorekatu eta batzordeko lankideentzat gutxiespen mingarriaren itxura ematen.

Ulargarria da, bestalde, Euskara Batuko batzordearen izenean eta kide guztiek irakurtzeko eperik ere gabe aurkeztutako zirriborroa hainbeste hutsune, gabezia larri, herrialdekeria eta kontraesanez beterik egotea. Ez naiz horretaz mintzatuko Onomastika batzordeburu den H. Knörrek azken urtarilaren 15eko txostenean puntuz puntu erantzun baitzion izkribuari irakurri nahi duenarentzat.

Hala ere, *gauza horiek ikusiz Onomastika batzordeak ez du dudatzen ea fida daitekeen* Euskara Batuko batzordeak *erabili ohi dituen gaineratiko datuez*, guri bai leporatu zitzaigun zirikadan bezala. Eta ze ondore ekarri du auzi honek guztiak?

Oyharçabalen argudioak arretaz irakurrita, Onomastika batzordeak haste-hastetik aurkeztutako testua lehen baino gardenagoa iduritzen zait; gure arteko

(*) Euskaltzaindiko Onomastika batzordeak, Etxarri-Aranatzen, 1999-VI-25ean onartua.

giroa alderantziz inoiz baino nahasiagoa. Jatorriko erabaki proposamenera itzuliz, hiru puntu xumetan laburbil daiteke gaia:

- *San / santa* hitzen erabilera orokorra.
- *Jaun done / jaun doni / done* formen eztabaida.
- Eta *deun* forma gaitzestea.

A) *San / Santa*.

“Euskara batuan *san / santa* erabiltzen dira eskuarki santu izenekin: *santa Elisabet, santa Katalina, san Simon, san Frantzisko*. Hau da, beraz, gomendio nagusia”, -zioen hitzez hitz proposamenak.

Azken finean, puntu honetan ez dago desadostasunik.

B) *Jaun done / jaun doni / done*.

Iparraldeko *Jaun done, jandone / jaun doni, jondoni / jundane* formez mintza gaitzetzke, noski, baina Zuberoa eta Lapurdi / Nafarroa Behereko tradizioaren arabera bi aldaera onartzearen alde dago Onomastika batzordea.

Done hitzarekin pizten da eztabaidaren sua. Irekia izan da Onomastika batzordearen joera eta tokian tokiko tradizioari jarraituz, Iparraldeko formekin batera Hegoalderako *Done* ere proposatu zuen. Dirudienez, Oyharçabalek Iparraldeko usadioa bakarrik ontzat ematen du, bestea arbuiatuz, eta Onomastika batzordea horren aurka dago..

Iritzietan bat etortzeaz edo ez etortzeaz bestalde, gaiari eman zaion zehar bideko tratamendu zakarra izan da itsusiena. Azken maiatzeko batzarrean Miren Azkarate euskaltzain andereak idatziz aurkeztutako bere batzordearen gomendio erabakiak *jondoni / jondone* forma biak bakarrik proposatzen ditu, Onomastika batzordearen Hegoaldeko *done* olinpikoki baztertuz lurak irentsi balu bezala. Batzorde bakoitzaren eginkizunak daude hemen koloka.

Hori aski ez dela, Euskara Batuko boz-emaileak *hitzez —in voce* alegia— eta ahapetik hara non dioen, batasunaren izenean Iparraldeko formak proposatzen direla Hegoalderako ere. Portaera horrek bere izena badu euskal hiztegiari: maltzurkeria. Tranpa.

Nire bizi guztia apaiz lanetan ibili ondoren has al naiteke orain *Jondoni Joanes* edo *Jondoni Petri* bezalako formak sartzen Sakanan? *Joanes* eta *Petri* onartu ditu Euskaltzaindiak baina, otoi, aski da.

“Santutegiko izen ohikoenen” zerrendak bere ondoreak dakartza eta arazoei aurre egiten ahalegindu beharko luke nolabait elkarte arau emailea istilu berririk sortu gabe. *San Joanes*, edo *san Petri* esan behar al da, bestalde, Murrikun edo Urdiainen?

Euskara Batuko batzordeak lerratzen utzi du, badaezpada, araz kanpoko *San Pedro* bat 1998ko abenduaren 14ko "Gomendio erabakien" bigarren le-roan. Serioa al deritzozue edozein batzordek, sakratuena izanik ere, Euskaltzaindiaren erabakietan bere kasa batuketa eta kenketak egiteari? Zer bait aldatzekotan ofizialki Euskaltzaindiak alda beza, mesedez.

Onomastika batzordeak bere garaian ikusi zuen, noski, arazoa eta zailtasun gehiegirik gabe, *done Petri* eta *Joanes donea* bezalakoak onar zitezkeela iduritu zitzaion.

Lasai egon bedi Ibon Sarasola adiskidea urtarrileko batzarrean neuri egoztitako kezka dela eta: "*Baina horren ondorioa bada «Donibaneren ebangelioa» bezalakoak esan beharra, gaizki ari gara. Mailak nahastea ez da zilegi*"-zioen, batzar-agiriak ongi jasotako hitzetan. Ez dakit 'mailak nahaste' hori nori dagokion kasu honetan. Elizgizon naiz eta euskaltzain izan ez banintz ere, ez zitzaidan sekula santan bururatuko *Donibaneren ebangelioa* bezalako esaldirik gaur eta hemen botatzea, eta hainbat gutxiago euskal izenez arduratzen den talde batean inori proposatzea. Berriri diot, bego lasai Ibon lankide porrokatua, denok dakigu milaka lan daramala eskuartean, ez dakigun beste askorekin, eta ez da aise Onomastika batzordeko txostenak ganoraz irakurtzeko astirik hartzea.

Done forma Hegoaldean:

a) *Dokumentuak.*

Argi gera bedi *done* hitza izan dela Hegoaldeko tradizioan nagusitu dena, *Jaun done* ere badelarik. Idazleetan ikus daiteke

— *Refranes y Sentencias: Done Bizen* argia (318). "*Doneaneko euria, garien galçaygarria*" (254).

— Mogel: *Done Joan* eta san Juan gauza bera dira. (*Peru Abarka*).

— Larramendi: *Done Matro*, San Bartolome. (*Dic. Tril.*).

— Aizkibel: *Done Juane, Done Matro*. (*Dic. Basco-Español*).

— Iztueta: *Done Inazio, Done Teresa* (*Gip. Dantza*, 122).

— Tx. Agirre: *Done Tomas, Done Zezili* (*Garoa*, 83, 173).

— Larreko: *Jondone Agustín, dona Nikola* (*Gerla urte, gezur urte*, 151, 159, 272; *Napartarra*, 39, 62, 110, 147).

— Orix: *Done Baladi*, e.a.

Aipagarria da benetan puntu honi buruz Garibai, mondragoar historiagile ospetsuak, bere garaian zioena:

"Si entre los Romanos el agnomento de Don era tan alto, muy mucho mas lo fue entre los Cantabros, que a solos los santos y bienaventurados atribufan

este nombre Don, o Done, que es todo vno. Esto dura hasta nuestros tiempos constantemente, Iauon Done Petri, o Peri, que siendo vna mesma cosa, quiere dezir, el Señor san Pedro, y al Señor san Miguel, Iauon Done Mikael, y al Señor san Martin, Iauon Done Martie, y a la Virgen Maria, Andra Dona Maria, y a otros de la manera y forma" (*Compendio historial de España*, lib. IX, cap. II, p. 331).

Tradizio zaharrekoak ez diren santuen izenak alde batera utzita, autore hauetan *Done* hitzak duen harrera ohikoa garbi azaltzen da, eta gutxienez mugaz handiko joeraren errespeto bera merezi du. Iparralde eta Hegoaldeko hiztegiak hurbiltzeko modurik nonbait egotekotan, forma honi dagokionean behintzat garbi ikusi zuten Onomastika batzordeak. Horregatik izan da harrigarria, hain zuzen, euskara batuaren izenean batasun bidea baztertu nahi izana.

b) *Herri tradizioa.*

Herriak ere, autoreek bezalaxe, baliatu izan du Hegoaldean santuentzat *done* forma. Neure inguruko adibide batzuk bakarrik emango ditut txostena ez gehiegi luzatzeko. Urdaingo paper zaharretan bada ermita bat urtero prozesioan jendea joaten zena. *Donaloria* (1688) eta *donalorio* (1709) aipatzen dira beste aldaera batzuen artean. Agiriak erdaraz egin arren, euskara zen eguneroko hizkuntza arrunta. Adibidez 1680ko diru kontuetan santa Nunilo y Alodia eguneko gastuak dakartzan agiriarekin beste papertxo bat dago zirriborro honekin: "Item mas la procesión de *dono Lorio sey reales*".

Gaurregun Urdaingo kanposantua dagoen lurraldeari 'Sanmartinkalde' deitzen zaio, baina XVIII. mendeko agiritan *done Martin* izeneko ermita aipatzen da. Bere horma bat bakarrik gelditzen da hilarrien ekialdeko harresian.

Duela hilabete bat izan naiz Andimendian Lizarraga Ergoienakoek berriztatu duten san Adrian ermita ikusten. Oso desitxuraturik zegoen eta ia dena berria da. Obra zaharreko atea burdinezkoa zenez bertan utzi dute, eta hara non ikusten dudana berari suaz itsatsitako letra handiekin honako esaera hau: *Adrian donearen eliza*.

Euskara Batuko batzordearen aipamenetan ez dirudi herri-jakintzak sarrearik baduenik. Azkue eta Barandiaran, adibidez, bigarren edo azken maila bateko autoreak dira nonbait. Herriaren ahots garrantzitsua dakartenez euskal literaturaren lekukotzat aipatzen ditut:

— Azkue, R. M.: *Donianez* (EY, I-297), *Doniane aurreko* (Bermeo, I-303), *Donian-iruntzia*, 'rociada de San Juan' (Bizkaia eta goi-nafarreraz, I-204), *Doniane-goizean* (Lekeitio, Murelaga, I-306). "San Juan gaur dala, biar dala *Doniane*" (IV-360).

— Azkue, E.M.: *Doniane goizez. Donian goizetan (Parnasorako bidea, 63)*.

— Barandiaran. “Bier dala *Donione*, etzi San Joan-biramune”. (Dic. Ilus. Mit. Vasca, 68).

San Martin euskaltzainak *Donielatxa*, ‘Doniane aretxa’ jaso zuen Berrizko Murgoitio auzoan. (*Anaitasuna* 1972-6-30, *Gogoz* 43-44).

Eta herri-jakintza jaso duten autoreek ez badute harrera onik Euskara Batuko batzordearentzat, hainbat gutxiago eguneroko hizkuntzaren lekukotasunak. Adibidez, ‘Gastelugatxeko *Doniene*’ esaten diote euskaraz Bermeo eta Bakioren artean bertako uharteari.

Nork ez du ikusten hor *Done* formaren oinarria?

Oyharçabalek oraingoan egin duen santu-izenen saileko luma jokua fantasmagoria guztien erreinuan sar liteke santurik balego han negar egiteko. Batzordearen izenean hark aurkeztutako testuek honela diote, besteak beste:

2. Gomendio erabakian berezi behar dira, ene aburuz, santu baten egiazko izendatzeko baliatzen diren formak, eta santu baten izena baliatuz garai desberdinetan, modu berezietan berdín, sortu diren beste deiturak (horien artean hagiotoponimoak) 1998-XI-10.

Lehen urratsa: santuak zuzenean aipatzean nola erran behar zaien. Ba dirudi horretarako egokiena dela finkatzea nola erranen zaien euskara batuan santuei, zuzenean haiek aipatzean, adibidez otoitzetan, edo erlijio liburuetan, edo historiari idazlanetan. 1998-XII-14.

Gaizki ulertu ez badut, san Fermin egunean santuari *zuzenean* otoitz egiteko balioko luke euskara batuan eman nahi zaion izenak, baina ez bere ‘*izena baliatuz*’ Iruñeko alde zaharrean barna egiten den prozesioarentzat.

Bizi guztian egin dudán apaiz lanera hurbilduz, herriko zaindariak *zuzenean* mintzatzeko izen bila omen gabiltza orain, baina santuaren *izenaz baliatzen* den aldea, parrokia, edo ermita izendatzeko ez. Nire benetako kezka da, santuaren izena daramaten elizako dokumentu ofizialen zigiluetan eta herri-festetako programetan zer ipini behar den. Ulertuko al du noizbait santuen izen-ebakuntza dialektikoa jendeak?

Nire ustez ez dago kristaurik autopsia hori onar dezakeenik. Ze tresnarekin bereiz daiteke hagiotoponimian noiz den santuaren aipamen zuzena, eta noiz toki izena? Saio bat egin dut neure burua argitu nahian Urdiaingo *Donaloria* zer den ikasteko. Santuen harrizko bi irudi ziren orain Eulateko elizan daudenak. Ermita bila ibili naiz eta ez da inguruan antzeko izenik agertzen. Iruñeko eliz barrutiko artxibo arduradunen bidez jakin dut azkenean, Urbasako jauregi ondoan zegoela eliza. Hormak bai, han daude, baina izenik ez. Santuak kendu eta izena galdu? Toponimoa al da beraz? Santu zerrenda laiko honen proposamena gauzak nahasteko asmatu den metafisika purifikatua besterik ez da, edo eguneroko bizian oinarritzen ez den ausardia hutsa.

c) *Euskaltzaindiaren erabakiak.*

Tramankulu guzti honen funtsa, azken finean, denok dakigu zein den: Hegoaldeko tradizio sendoa duen *done* izena arbuiatu eta Iparraldeko ohitura inposatzea. Euskal Akademiaren orain arteko jokabidea apurtu eta aurreko erabakien aurka apustu egin du su-ta-gar Euskara Batuko batzordeak. Hona zenbait adibide:

— *Done* hitza onartua izan da gure *Hiztegi batuko* zerrendan.

— *Done Bikendi* izena ere erabil daiteke, tokian tokiko tradizioari so eginenez, esaten da behin eta berriro Euskaltzaindiak berea duen *Santutegiko izen ohikoenen* artean (Ikus. 403 eta 419. orriak).

— *Done Mikel Aralarkoa* deitzen da Altsasu Institutua. ‘Aralarko Mikel Donea’ zuen hasierako izen ofiziala, eta “euskarazko izendapena oso zuzena ez zelakoan”, bertako arduradunen hitzetan, aholkua eskatu zitzaion Euskaltzaindiari 1995eko irailaren 15ean. Hori dela eta Onomastika batzordearen gomendioz ipinitako izena da oraingo *Done Mikel Aralarkoa*.

— *Donejakue bidea* gomendatzea erabaki zen etxe honetan bertan ‘Santiago bidea’-ren ordez eztabaida luze, garrantz eta beroen ondoren. *Donejakue*, hitz batean alegia. Aurtengo San Fermin festetako programa daukat eskuartean eta *Done Jakue plaza* aipu du behin eta berriz, batez ere letra handiekin 49. orrian gaueko zezensuzkoa iragartzeko.

Ez nuke luzatu nahi, baina nire kezka larria serioски agertu nahi dut etxe barnean oraingoz: nora doa gaur Euskaltzaindia bere itzal serioari gehiagoko begiramendurik gabe? Memoria historikoaren ikuspegia behar-beharrezkoa du elkargoak errespetua ez galtzeko, edo barregarri geldituko da herriaren aurrean.

C) *Deun* forma gaitzestea.

Gaurregun *deun* forma nagusitu da Hegoaldean. Berriagoa izateaz bestalde, Ipar-Hegoaldeko hiztegi batasunetik aldentzen gaituenez, ez erabiltzea proposatzen du Onomastika batzordeak.

Gomendio hau ere ez dateke norbaiten gustukoa eta baztertu egin du Euskara Batuko batzordeak. Onomastikakoen iritziz, hori gabe jai dute *San / santu* eta santutegiko zerrendan beste gomendio guztiek, modako euskara itxurosoaren ezaugarri zabalduena *deun* baita.

Iaz herri festetako programa batek azalean eta letra handiekin honela zioen:

Doneztebe: Pedro **deunaren** festak, -karrikako euskara landuaren izenean noski-.

Eta amaitzeko, azken galdera: asko eskatzea al da Onomastika batzordearen eskuarteko gomendio-proposamena -beingoan onartzeko ala arbuiatzeko-besterik gabe batzarrean hitzez hitz ikustea? Etsipenaren oihartzun ahuldua.